

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Aberasturin konektatu gabeko hobi septikotik datozen hondakin-ur sanitarioak isurtzeko baimena, Vitoria-Gasteizko udalerrian

Espediente-zenbakia: VDP-A-2021-0017.

Eskatzailea: Gasteizko Udal Urak SA (AMVISA).

Gasteizko Udal Urak SA (AMVISA) baimena eskatu du Vitoria-Gasteizko udalerrian hondakin-urak isurtzeko, instalatutako arazketa-sistemaren bidez tratatzeko. Horretarako, dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar egun baliouduneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta bihamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Forondako Atea kalea 9, 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abuztuaren 24an

Ur-probetxamenduen arduraduna
AITOR BELDARRAIN URIONDO